

Gauza jakina da Ernest Hemingway (1899-1961) idazle eta kazetari estatubatuarrek lotura berezia izan zuela Euskal Herriarekin. Iruñeko sanferminak mundura zabaldu zituela esaten da maiz. Baina lotura horrek uste baino bihurgune eta zirrikitu gehiago izan zituen.


1926an idatzitako bere eleberri ezagunenetakoan, “Fiesta” izenekoan (“*The Sun Also Rises*”), Iruñea eta Sanferminak aipatzen ditu, baina baita Donostia ere. «Badakigu Donostian askotan izan zela, akaso Iruñean bezainbeste. Kostan ere ibili zen. Euskal Herriko toki askotan egon zen eta saiatzeko ari gara toki horiek deskubritzen. Batzuetan pasadizo hutsak dirudite, baina errelatoa osatzeko garrantzitsua da pasadizo horiek topatzea eta ordenatzea. Bidaia bakoitza eta ezagutu zuen toki bakoitza testuinguruan jartzea garrantzitsua da», dio Iñaki Sagarna historialariak. Irakaslea da ofizioz, baina bere zaletasun biziena da Hemingwayren inguruan ikertzea. Uztailean Donostian eta Bilbon izan den “Ernest Hemingway eta Euskal Herria” kongresuko zuzendari teknikoa izan da Sagarna.

Horretarako, Hemingway hobeto ezagutzeko, idazle eta kazetariak idatziak utzi dituen milaka eskutitzak ikertzen aritu da Sagarna. «Proiektu honetara Edorta Jimenez eta Javier Muñozekin gerturatu nintzen. ‘Hemingway traveler’ izeneko proiektuarekin ari ziren eta ‘The Hemingway Letters Project’ aipatu zidaten, AEBetako proiektu bat. Idazlearen eskutitz guztiak ikertzen eta sortetan argitaratzen ari dira. 2002an hasi zen proiektua eta aurrez argitaratu dute seigarren liburukia, 1934-1936 urteetako eskutitzak biltzen dituen, gerra zibilaren aurrekoak. Espero dute bere eskutitz guztiak 17 liburukitan argitaratzea. Badakite 6.000 eskutitz inguru direla eta, era berean, badakite eskutitz asko galdu egin direla. Geratzen diren eskutitzak ari dira argitaratzen. Gutun horien bitartez ia-ia eguneroko bat osatu daiteke, informazio asko ematen dute. Adibidez, 1939an idatzitako gutun batean bere lehen emazte Hadleyri kontatu zion zeinen ondo pasatu zuen Burgeten egin-

HEMINGWAY, EUSKAL HERRIA ETA EUSKAL HERRITARRAK

Amagoia MUJICA TELLERIA

Ernest Hemingway idazle eta kazetari estatubatuarra Iruñeko sanferminen enbaxadorea izan zen mundu osoan, baina Euskal Herriarekin eta euskal herritarrekin izan zituen loturek ertz gehiago dituzte. Iñaki Sagarna historialariak horietan jartzen du arreta, bigarren lerroko pertsona eta lekuetan; bigarren lerroari begira beste kontakizun bat begiratzen delakoan. Uztailean izan da Donostian eta Bilbon «Ernest Hemingway eta Euskal Herria» kongresua.



dako egonaldian. Hor ikusten da, Aurtzen egon zenetik hamar urte baino gehiago pasatu diren arren, oraindik harreman berezia daukala toki horrekin. Horrelako pistak aurki daitezke bere gutunak ikertuz».

Izan ere, pentsatzekoa da idazleak eta kazetariak beste ahots bat daukala gutunetan, erreportajeetatik eta liburuetatik desberdina. «Askotariko gutunak daude, batzuk formalagoak eta besteak informalagoak. Txantxa asko egiten ditu gutunetan. Bere gutunak aztertuta ikusten da, adibidez, oso eskuzabala zela hasten ari ziren idazle gazteekin. Lagundu egiten zien, haien zalantzak erantzuten zituen, aholkuak eman... Bere lagunekin ere sumatzen da eskuzabaltasun hori. Hala behar zuten lagunei, laguntza merezi zutela pentsatzen bazuen, diruz asko laguntzen zien. Hori ere ikusten da gutunetan. Bere argi-ilunak ere bazituen. Oso eskuzabala zen, baina oso gupidagabea ere izan zitekeen».

Euskal Herriarekin lotura berezia zuen, baina baita euskal herritarrekin ere, Euskal Herritik kanpo bizi ziren zenbaitekin kasu. «Lotura horiek batez ere 40ko eta 50eko hamarkadatan ikusten dira, bere laguntasun handienak Kuban garatzen diren garaian. Badiara bere bizitzan garrantzia daukaten zenbait pertsona. Adibidez, Juan Duñabeitia euskal erbesteratua. ANVko figura garrantzitsua zen eta, Kuban zegoenean, Hemingwayren etxean bizi zen. 40ko hamarkadan Kuban finkatu zen Duñabeitia. Marinela zen eta, itsasoan ez zegoenean, Finca Vigian egiten zuen lo, Hemingwayren Habanako etxean. Beste pertsona garrantzitsu bat Andres Unzain izan zen, Saseta Batailoiko kapilaua. Gernika suntsitu zutenean bertan zegoen. Arreba bat zeukan Kuban eta bertara alde egin zuen. Kuban eliza bateko ardura eman zioten, gune pobreenetakoan zegoen eliza bat. Ez dakigu nola ezagutu zuten elkar, baina badakigu asteazken oro biltzen zirela. Eskutitz batean Unzain ‘nire manager espiritual’ bezala deskribatzen du».

Euskal Herriarekin eta euskal herritarrekin zeukan lotura horren gakoak

argitzea ez da erraza. «Sanferminetako topikora bueltatuz, berak idazten due-
nez, jai horiek liluratu egiten dute. 1923. urtean asko gustatzen zaion zer-
bait bizi zuen, Iruñeko giro horrek ha-
rrapatu egin zuen. Oso ondo pasa
zuen, bertako jendeak sekulako harre-
ra egin zion... hor bada barru-barruan
ukitzen duen zerbait. Bestetik, Euskal
Herriko paisaiak asko gustatzen zi-
tzaizkion, bere deskribapen zehatzetan
ikusten da hori. 1920 eta 1930eko ha-
markadatan, gerra zibilaren aurretik,
hamar bat aldiz egon zen Euskal He-
rrian. Ondo ezagutzen zuen egoera.
Gerraren ondoren lotura berezia egin
zuen Espainiako eta Euskal Herriko
deserriratuekin. Baita pilotariekin ere.
Bada Gustavo Durani idazten dion es-
kutitz bat, eta bertan ikusten denez,
bere euskal lagun gehienak abertzaleak
ziren. Lotura estua egin zuen eus-
kal errefuxiatuen munduarekin, nahiz
eta gero falangistekin ondo moldatu
zen 60ko hamarkadan. Baina bere arti-
kuluetan eta eskutitzetan ikusten da
Euskal Herriaren egoeraren berri ba-
zuela, ondo ezagutzen zuela zer gerta-
tzen zen euskal gizartean».

Euskararen presentzia ere badago
Hemingwayren eskutitzetan. Bernard
Berenson Italiako arte adituak eta Er-
nest Hemingwayk elkarri eskutitz
mordoa idatzi zioten zortzi urtez, 1949
eta 1957 bitartean. «1956an idatzitako
eskutitz batean, Hemingwayk esaten
dio 'komunikazio modu misteriotso
bat da, euskara bezala' eta honakoa
idazten du: 'zuregatik etorri naiz', eus-
karaz. Ez dut oso ondo ulertzen zein
zentzutan idazten duen, gehiago iker-
tu behar dut. Baina euskaraz hiru hitz
horiek idatzi zituen. Justu 1956an,
Isaac Mendizabalek euskarazko hizte-
gi bat oparitu zion».

Euskal Herriko paisaiak ere asko
maite zituen estatubatuarrak; Donos-
tian, Iruñean, Bilbon, Gasteizen, De-
ban, Donibane Lohizunen, Baionan,
Auritzen, Iratin... toki askotan egon
zen. Aurten justu 100 urte bete dira
Irati lehen aldiz bisitatu zuenetik, «as-
ko liluratzen zuen inguru horrek»,
esan du Sagarnak.



LAGUN ABERTZALEAK ETA FALANGISTAK

Gerraostean Estatu espainoletik alde
egin behar izan zuten errefuxiatuekin
laguntasun estua egin zuen Heming-
wayk, asko euskal herritar abertzaleak
ziren. 1960ko hamarkadan, berriz, fa-
langista espainolekin harremanak izan
zituen. Norabide aldaketa? «Ez dut us-
te. Hor bada liburu bat, 'El mito de la
cruzada de Franco', Herbert Southwort-
hek 1960 inguruan argitaratua. He-
mingwayk bost istorio idatzi zituen ge-
rra zibilari buruz eta berriz
argitaratzeko proposatu zioten. He-
mingwayk ezetz esan zuen, ez zuelako
uste idatzi horiek maila nahikorik zu-
tenik. Eta prentsa frankistak Heming-
wayren ezezko hori baliatu zuen 'orain
Hemingwayk gu babesten gaitu' esate-
ko. Gertaera hori jasotzen du bere libu-
ruan Southworthek. Hala ere, egia da
bazuela harremana falangistekin; Ma-

«1920 eta 1930eko hamarkadatan, gerra zibilaren aurretik, hamar bat aldiz egon zen Euskal Herrian. Ondo ezagutzen zuen egoera. Gerraren ondoren lotura berezia egin zuen Espainiako eta Euskal Herriko deserriratuekin»

Euskal Herriarekin ez ezik, euskal herritarrekin ere lotura berezia zeukan. «Juan Duñabeitia euskal erbesteratua ANVko figura garrantzitsua zen, eta Kuban zegoenean, Hemingwayren etxean bizi zen, Habanako Finca Vigian»

Alboko orrialdean, Iñaki Sagarna
historialaria. Hemingwayren
ibilerak ikertzea maite du. Lerro
hauen gainean, Aieteko kultur
etxeko erakusketako zenbait panel.
Irailaren 15a bitartean izango da
bisitatzeko modua.
Gorka RUBIO | FOKU

riano Santos, Jose Luis Castillo Puche,
Rafael Serrano Garcia... horiekin ba-
zuen laguntasun bat, ez dakigu zein
neurritakoa. Kontuan izan behar dugu
une horretan falangistak Francoren
kontra zeudela, sistemaren kontra zeu-
delako. Hemingway oso zezenzalea zen
eta hori ere datu garrantzitsua da. Ze-
zenketaren inguruan dabilen jende as-
ko falangista da; Ordoñez toreroa Fuer-
za Nuevako zen eta berak asko
miresten zuen Ordoñez. 'Life' aldizka-
rirako toreroen inguruko erreportaje
bat egin zuen eta bertan Dominguin
eta Ordoñezen jarraipena egin zuen.
Segur aski hor falangistekin harrema-
na egin zuen».

Kazetaria eta idazlea zen. Batzuen
arabera, kazetari baino idazle hobe-
a. «Niri bere erreportajeak gustatzen
zaizkit. Aditu batzuen esanetan, den-
bora falta zitzaion kazetaritzarako. He-
mingwayk moldaketa asko egiten zi-
tuen bere testuetan, konponketa asko,
eta kazetaritzak ez du horretarako den-
borarik ematen. Literaturak beste pa-
txada bat ematen zion. Baina niri iru-
ditzen zait kazetari bezala dezente
bustitzen zela eta hori ikusten da gerra
zibilean idatzitako testuetan. Eleberri-
gile bezala ikusten dugu nagusiki He-
mingway, baina bera istorio laburren
egile oparoa eta aparta zen. Adibidez,
'The Sea Change' liburuan istorio oso
ederra kontatzen du. 1932. urtekoa da,



eta emakume batek kontatzen du gizon-
ezko bikotea utzi eta beste emakume
batekin elkartzen dela. Istorio osoan
zehar ez du generorik aipatzen, baina
ulertzera ematen du gertaera osoa. Is-
torio laburren egile izugarri ona da, be-
re eleberriak gutxietsi gabe, noski. Hil
eta gero argitara emandako ‘The Gar-
den of Eden’ eleberrian ere aztertze-
ko asko dago. Eleberri oso interesgarria
da, bertan asko hitz egiten da sexu ro-
len aldaketaz. Ez dugu ahaztu behar
1920ko hamarkadan kokatua dela eta
matxo irudi oso indartsua zuen idazle
batek idatzia dela. Bere literaturan oso
gauza interesgarriak daude, une oro
berritzen saiatzen baita».

Izaera berezia zeukan Ernest He-
mingwayk, izaera aldakorra eta apeta-
tsua. 1954ko urtarrilean bi hegazkin is-
tripu oso larri izan zituen Afrikan.
Murchison ur-jauzien gainetik hegan
ari zen, Ugandan, bere emazte Mary
Welsh kazetari eta idazlearekin batera,
hegazkinak zutabe elektriko baten kon-
tra talka egin eta larrialdiko lurreratzea
izan zuenean. Nobel saridunak kolpe
handia hartu zuen buruan eta emaz-
teak saihetsak hautsi zituen. Beste ai-
reontzi batek osasun-zentro batera era-
man zitzala eskatu zuten. Hurrengo
egunean, hegazkin horretan zeudela,
lehertu egin zen aieratu aurretik. Su-
garretatik ihes egitea lortu zuen leihoe-
tako bat hautsiz, baina bigarrenetan,
zauriak handiagoak izan ziren. Idazleak
berriro kolpatu zuen burua eta erredu-
rak izan zituen gorputz osoan.

Komunikabideek hiltzat jo zuten eta
bere ibilbideari buruzko hileta-
liburuak argitaratu ziren. Heming-
wayk aste batzuk behar izan zituen
sendatzeko, baina ez zituen ondorio fi-
siko eta psikologikoak gainditu. Ipuin-
gilearen narriadura nabarmena izan
zen. «Aitu batzuen arabera, istripu
horien ondoren grafia aldatu zuen eta
bere diskurtsoa oso nahasia bihurtu
zen. Kolpe horiek eragin handia izan
zuten bere izaeran eta harremantzeko
moduan».

1961eko uztailan bere buruaz beste
egin zuen Ernest Hemingwayk. «Azken
urteetan bere emazte Maryri bidali ziz-
kion eskutitzetan ikusten da asko su-
fritzen ari zela. 60ko amaieran sekula-
ko depresioa zeukan eta tratamendua
jaso zuen, nahiz eta publikoki ez zuen
esan. Baina garbi ikusten da azken ur-
teetan sufrimendu handia zuela».

Sagarna historialariaren zaletasuna
da Hemingway ikertzea, baina toki be-
rezi batetik. «Non, noiz, nola egon zen
ikertzea gustatzen zait, bere bizitzan
sakontzea. Badirudi pasadizo eta ger-
taera xumeetan jartzen dudala begira-
tua, baina niri hori gustatzen zait».

Eta begirada horretatik begiratu dio
Ernest Hemingwayren heriotzari ere.
«Idahoko etxean bere buruaz beste
egin zuenean, Goikoetxea abizeneko
emakume batek garbitu zuen heriotza
gertatu zen logela. Euskaldunen ondo-
rengoa zen Hemingwayren etxea gar-
bitzen zuena. Maryk telefonoz deitu
zuen senarraren heriotzaren berri

Egunotan Donostiako Aiete Kultur
Etxean ikusgai dago «Hemingway
eta Euskal Herria» erakusketa.
Goiko argazkietan, erakusketako
detaile pare bat.
Gorka RUBIO | FOKU

emateko, eta telefonoaren beste aldean
Sabino Uberuaga zegoen, Boiseko ube-
ruagatarren familia sonatuko kidea.
Telefono konpainian lan egiten zuen
eta berak hartu zuen heriotzaren berri
ematen zuen deia. Eta ehorztetxean ze-
goen Pilar Arriaga, euskalduna hori
ere. Lehendik ere izan zuen harremana
idazlearekin. Arriaga Harris familiako
kide batekin ezkondua zegoen eta
ehorztetxea Harris familiarena zen. Pi-
lar Arriaga bera arduratu zen Ernest
Hemingwayren gorpua babesteaz, ka-
zetariak argazkirik ez ateratzeko. Eta
Goikoetxearen bi seme –etxeko garbi-
tzailea– Ernest Hemingwayren hiletan
mezalagun aritu ziren. Ez dira lotura
erabat zuzenak, baina balio dute ikus-
teko Idahon Hemingway euskaldunetz
inguratuta zegoela».

«Ernest Hemingwayren ibilerak iker-
tzea nire zaletasuna da. Izugarri gusta-
tzen zait eskutitzetan detaileak topatzea,
ea nora eramaten nauten. Idazlearen in-
guruan dabilzan bigarren mailako akto-
reak interesatzen zaizkit, lehen lerroan
agertzen ez direnak. Bere bizitza biga-
rren lerroko aktoreen bitartez kontatu
nahi dut, beste kontakizun bat delako»,
azaldu du Sagarnak.

Ikerketan jarraituko du. «Harremana
daukat Hemingwayren eskutitzak iker-
tzen eta biltzen ari direnekin. Tarteka
zalantzak bidaltzen dizkirate, hemen-
go pertsonen eta tokien inguruan, eta
horiek argitzen saiatzen naiz. Oraindik
badago zer ikertu, eta horretan jarrai-
tuko dut».